

Bizkaiko aldizkari ofizial 124 2006-06-09
IRAGARKIA

Bermeoko Udaleko Osoko Bilkureak, 2006ko martiaren 2an egindako batzarrean, hasiera batean onartu eban Jarduera Ospetsu eta esanguratsuetarako bekak emoteko udal arautegia, eta 30 eguneko epean jendaurrean egon eta gero, behin betiko onartu da, ondoren adierazoten dan moduan:

JARDUERA OSPETSUEI ETA ESANGURATSUEI BEKAK
EMOTEKO PROZESUAK ARAUTUKO DABEZAN OINARRI
OROKORRAK

Bermeoren izena eta Bermeo bera goraiatzeko bide asko eta askotarikoak dagoz. Sarritan, egiteko hori administrazio publikoari baino ez jagokola pentsetan da, hau da, administrazioak zerbitzu eta jarduera kulturalak, artistikoak zein bestelakoak ezarteko eta kudeatzeko daukazan bideen bidez. Udalerriari oihartzun publiko handiagoa emoteko bideak, azken finean.

Baina, kasu batzuetan, udalerriko bizilagunek be laguntzen dabe herriari bultzada barria emoten. Jarduera jakin batean, profesionala zein ez, begirunea, mirespena eta ospea lortzen dabe eta, horreek, azken finean, gure udalerrriaren izenari prestigioa emoten deusie, eta goratu egiten dabe, udalerriko mugetatik harago egin be.

Horreek jarduerak, normalean, administrazioaren parte hartze eta laguntza barik egiten badira be; bidezkoa da udal erakundeak jarduerok sustatzea ezeze, behar beste akulatzea be, izan be, administrazioak, epe luzera, beraren irudiaren eta izenaren aldeko oihartzunaren etekina be lortzen dau.

Halanda ze, beharrezkoa da jarduerok sustatzeko eta garatzeko akulua eta suspergarria izango diran sistemak ezartea, hau da, jardueron garapenari laguntzea eta sari ekonomikoak emotea.

Hau guztiau barria izan daiteke lehenengo begiratuan, baina ez da hain barria, izan be, udalak, kasu batzuetan, eta esandakoa kontuan hartuta, kobrau be egin dau beraren alde.

Bat aipatuta nahikoa izango da: Udalbatzak gure herriko artista ospetsu Benito Barruetari emon eutson laguntza ekonomikoa, beraren arte-trebetasun bikainak irudikatzen segidu eian, Madrilen zein Parisen. Orain, urte asko pasau eta gero, margolari bermeotar harek itxi euskun arte eta kultur ondasun handia gozatu geinke; Bermeori itxi eutson legatua da haren obra guztia.

Oinarriokaz, beraz, beka batzuk ezarri gura dira, Bermeoko Udalaren eretxian holako jarduerak egiten dabezan persona danak saritzeko, hain zuzen be. Era berean, eta lehen esan dan moduan, euren trebetasunak eta zaletasunak landu gura dabezan beste personak animetako, bultzatzeko eta zirikatzeke be erabili gura dira, Bermeon zein Bermeotik kanpora oihartzun publiko nahikoa izan leikien jarduerak bultzatzeko, hain zuzen be.

OINARRIAK

LEHENENGOA

Bermeoko Udalak jarduera kulturalak, artistikoak zein beste edozein izakeratakoak bultzatzeko eta zaintzeko bekek ezarten dauz, aldeko oihartzun publiko zabalaren bitartez Bermeoren izen ona zabalduko dabenek jarduerak saritzeko, alegia.

Era berean, Bermeoko Udalaren helburuak eta asmoak lortzen lagunduko dabenek egitamuek be jaso ahal izango dabek bekok, Tokiko Administrazioaren eskumenen barruan betibe.

BIGARRENA

Jarduerak intelektualak zein eskulanak izan daitekek, baina horreen garapena jarraitua eta eten bakoa izan behar da, harik eta amaitu dalako itxi behar dan arte; edo, bestela, bekearen kontzeptuagaz edo haren pertzepzioagaz bateragarria ez bada.

Izakera politikoa edo sindikala daukien jarduerak edo beharrak ez dira kontuan hartuko honeetarako beketarako.

Behar eta jarduera jakin eta zehatzetarako be ezin izango dira eskatu honeek bekek, baldin eta etorkizunerako daukien balioespen publikoa zalantzarria bada.

Era honetako bekek persona fisikoek baino ezin izango dabek jaso. Elkarteek eta taldeek ezin izango dabek jaso, horreek laguntza ekonomikoak jasoteari buruzko udal ordenantzaren mende dagozalako.

HIRUGARRENA

Egindako beharrak behar besteko ospea eta oihartzuna izango dau kanpoan, hau da, komunikabideetan eta iritzi publikoan, oro har, ugari eta

aldizkakotasunez agertu beharko da horreen beharren edo jardueren aldeko aitamena.

LAUGARRENA

Ez da eskabideak aurkezteko epe jakinik ezarten, edonoiz aurkeztu ahal izango dira.

Eskabideak aurkezteko epea deialdi bakotxeko oinarri berezietan ezarriko da.

BOSGARRENA

Eskatzaileak, beka-eskaerako orriagaz batera, memoria bat be aurkeztuko dau; eta, bertan, bekea eskuratzeko egiten dauzan beharrak zein diran zehaztuko dau. Halaber, horreek beharrok iritzi publikoan euki daben eragina, oihartzuna eta onarpena udalari egiaztatzeko datuak be sartu beharko dauz memoria horretan, baita behar diran bitartekoak be.

SEIGARRENA

Kultura batzordeak epaimahai bat eratuko dau kasu bakotxerako. Epaimahai horretan udalean ordezkartzea daukan alderdi politiko bakotxeko ordezkari bat eta kalifikatu gura dan gaian edo jardueran adituak diran persona bi egongo dira. Horreek persona biak Tokiko Gobernu Batzarrak izentauko dauz, Kultura batzordeak proposatuta. Idazkaria Bermeoko Udaleko berbera izango da.

Epaimahaiak askatasun osoz ebatziko dau bekea emotea komenigarria dan ala ez, eta Kultura batzordeari igorriko deutso jagokon proposamena. Kultura batzordeak, bestalde, bekea emoteko eta zenbatekoa zehazteko edo, bestela, ez emoteko, proposatuko deutso Tokiko Gobernu Batzarrari.

Hartutako ebazpenak ez dau errekurtsorik onartuko.

ZAZPIGARRENA

Beka bakotxaren zenbatekoa kasuz kasu zehaztuko da; zehaztu be, Kultura batzordeak egindako proposamenaren arabera.

Horretarako, udaleko Aurrekontu Orokorrean helburuotarako egoki eristen dan kreditua esleituko da, eta zenbateko horren barruan beti, egokitatz jotzen diran beka zein egitamu guztiak emon ahal izango dira.

ZORTZIGARRENA

Bekea zenbateko bakar baten zein aldizkako kopuruetan emon ahal izango da, kasu bakoetarako ebazten danaren arabera. Era berean, bekea emon ezker, eta hola ebatzi ezker, baldintza batzuk betetako be eskatu ahal izango da.

Bekearen zenbatekoa beka horren xedea izan dan jarduer, edo beharra garatzeko baino ezin izango da erabili. Horrek baldintzak beteten ez badira udalak emon dauen diru kopurua itzultzeko eskatuko deuto onuradunari, jagokozan zigorrei kalterik egin barik.

Zenbateko bakar bat jasoten daben beken kasuan, beste beka bat be eskatu ahal izango da egitamu berbererako, aurreko zenbatekoa behar dan moduan justifikatu bada, eta egitamua ondo amaitzeko beste beka hori behar dala egiaztatzen bada.

BEDERATZIGARRENA

Bekon onuradunek honeek obligazioak bete beharko dabez:

- a) Bekea jaso ezker, jarduer hori egin egin beharko da.
- b) Jasotako bekearen zenbatekoa oso-osorik erabili beharko da aurkeztutako egitamu garatzeko.
- c) Proiektu bakoetara kasu bakoetarako ezarten diran epean eta bitartekoen bidez egin dala justifikatu beharko jako udalari.
- d) Kasu bakoetean ezarten diran egiaztapen-jardueren mende parau beharko da.
- e) Helburu berbererako beste dirulaguntza edo beka batzuk jaso ezker, jakinarazo egin beharko jako udalari.
- f) Udalak informazioa eskatzen dauenean emon egin beharko jako.
- g) Bermeoko Udalak berarentzako hartzen dau, kasu guztietan, bekea jasoten daben beharrak argitaratzeko eta hedatzeko eskubidea, edozein formatutan eta bitartekotan; baina, horrek argitarapenak ez dau egile-eskubideak erabilteagaitik ezelango eskubide ekonomikorik eragingo.

Bekearen onuradunak, kasu guztietan, inprentako probak zuzentzeko zereginetan lagundu beharko dau, argitaratu aurreko probetan, hain zuzen be.

Argitaratzeko eta hedatzeko eskusibako eskubide horrek hiru urteko iraupena eukiko dau, udalak behin betiko beharra jasoten dauenetik aurrera zenbatuta, eta eskubide hori, idatziz jasoko da, parte biek sinatuko daben akta batean.

Epe hori amaitzen danean, egileak beraren kontura argitaratu ahal izango dau. Baina, aurretiaz udalari jakinarazo beharko deutso, eta beraren kontura argitaratu ezker, argitarapen horretan beharra udalak emoniko bekearen emoitzea dala ipini beharko dau.

Bekea jaso dauen beharra argitaratzeko, hedatzeko... eskubideak, eskusibotasunez, Bermeoko Udalarenak izango diran denpora tarte horretan. Jaubetza Intelektualaren ondoriozko eskubide ekonomikoak be Bermeoko Udalarenak izango dira, eta egileak egiletasun horren ondoriozko eskubide moralak baino ez dauz eukiko.

Egileak jaubetza intelektualari datxekiozan eskubide guztiak epe hori igaroten danean berreskuratuko dauz.

Salbuespen legez, eta hiru urteko epe horren barruan, Bermeoko Udalak bekearen xedeagaz zerikusia daukien berbaldiak emoteko, mahai-inguruetan parte hartzeko... eskatu ahal izango deutso onuradunari, horren trukean ezelango diru-ordainik jaso barik.

Beharraren espezifikotasunak holan eskatzen dauenean, Bermeoko Udalak, bekea jasoteko baldintza legez, bekearen ondoriozko lanaren jaubetza udalarena berarena izatea exijitu leike. Kasu horretan, beharraren egileak eskubide moralak baino ez dauz eukiko.

Artikulu honetan aitatu diran baldintzak ez betetea nahikoa izango da udalak beka legez emon dauen diru kopurua itzuli behar dauela agintzeko onuradunari, jagokozan zigorrei kalterik egin barik.

HAMARGARRENA

Tokiko Gobernu Batzarrak Jarraipen batzorde bat izentau ahal izango dau, eta batzorde hori, proiektuaren garapen egokia bermatzeko, behar beste bider batuko da onuradunagaz. Batzorde horrek laneko erritmoa egokia dala zainduko dau, eta egitamuaren urratsak eta zirriborroak aztertuko dauz. Holan, beharra behar dan moduan garatuko dala bermatuko da, baita lanaren ikuspuntua eta sortu dan itzaropena bat datozela be.

HAMAIKAGARRENA

Eskabideak aurkezteko deialdia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratuko da urtero. Deialdi horretan oinarri orokorrotan jaso ez diran eta beharrezkotzat jotzen diran berezitasunak jasoko dira. Horrezaz ganera, bekak emoteko erabiliko dan prozedurea eta deialdia ebazteko egongo dan epea be zehaztuko dira.

Bermeon, 2006ko ekainaren 7an
Alkatea

Juan Karlos Goienetxea Beitia